

INORK EZ DAU OSASUNERAKO “ESKUBIDERIK”

Osasuna, eskubidea ete da? Eskubidea ete da edertasuna edo maitasuna? Eskubidea ete da adimena, zoriontasuna edo ontasuna?

Ez, inork ez dau “osasunerako” eskubiderik, baina pertsona eta herri guztiek bai dabe azken batean osasuna “eragiten” daben **BABESERAKO, SUSTAPENERAKO, PREBENTZINORAKO ETA ARRETA KLINIKORAKO** eskubidea. Eskubidea da, orduan, norbanakoari zein alkarteari ongizate fisiko eta emozionala bermatuko deusan **OSASUN SISTEMA** eskura izatea?

Bai biribil batez erantzun nahi dogu eta, gainera, Osasunaren Mundu Erakundearen oinarri nagusiak betetzen dituala esan gurako geunke:



1. **Unibertsaltasuna:** erabateko estaldura herritar guztientzat.



2. **Osoko arreta:** laguntza emoteaz gainera, sustapenean, prebentzinoan, tratamantuan eta erreabilitazioan arreta jarri.




3. **Zuzentasuna:** justizia baliabideen banaketan.



4. **Eraginkortasuna:** zerbitzu hobek eta osasun-maila hobea kostu txikiagoan.



5. **Funtzionaltasuna:** beharizan barriei bizkor erantzun.



6. Herritarren benetako **alkarte partaidetza** osasun sistemaren plangintzan eta kudeaketan.



7. **Arloen alkarrekintza:** hainbat gizarte arlotako erakunde esanguratsuenen esku-hartze koordinatua.



Baina, zoritxarrez, ez da hain erraza... OMEak eskuartean dituan datuen arabera, gaur egun munduko biztanleriaren %64ak baino ez dau oinarrizko osasun-arretaz gozatzeko aukera. **[Estekan]** estekan ikusi daiteke mundu mailan osasun-parametroen egoera zein dan, eta berehala jabetuko gara herrialdeen arteko zoritxarreko desbardintasunaz. 1855ean lehenengo lege arautzailea atara zanetik, Espainian osasun publikoak argilunez betetako ibilbide luzea burutu izan dau; guztion egitekoa da orain, lortutakoa finkatzea eta hobetzen jarraitzea.

“Osasun Sistema Nazionalaren jasangarritasuna bermatzeko preminazko neurrien (...)” 16/2012 Errege Lege Dekretuak osasun zerbitzu publikorako eskubidearen izaera aldatu eban. Arretarik jasoten ez eben pertsonak egotea ekarri eban. Dekretu hau 2018an indargabetu zan, baina araudia oraindik ez da erabat garatu eta, ondorioz, gaur egun be badira osasuna eskura ez daben pertsonak. Horri beste hainbat gauza gehitu jakon: erabilera orokorreko gero eta botika gehiagori finantzazio publikoa kendu, kasu batzuetan ambulanzia ez ordaindu, ordainketa/koordainketa farmazeutikoa, zerbitzuen karteran sartzen diran laguntzak gitxitu eta lan behin-behinekotasuna osasun eremuan.

Halanda be, hainbat autorek estatistiken bidez egiaztatzen dauanaren arabera, herritarren osasun onak BPGaren %0,3-0,5 inguruko ekarpen zuzena egiten deutso ekonomiari urtero, gurea bezalako osasun-sistema unibertsalak kostatu dana baino askoz gehiago emon dau eta, beraz, kontraesana da gainerako aktiboen antzera ez babestea. Prebentzinoan, azpiegituretan eta, batez be oinarrizko arretan egiten diran inbertsinoei esker, miloeka euro aurrezten da egunero. Azkenaldian egin dan hainbat azterlanen arabera, gaixo askok ez ditu agindutako botika onuragarriak hartzen koordainketa ezarri izanaren ondorioz... Ondorioa, giltzurrunetako gaixotasun gehiago, iktus gehiago, bihotzeko gehiago, diabeto gehiago... izango da, desorekatu guztiak larrialdietarako geletara, osasun-sistemako eremurik garestienetara, joan beharrean aurkitzea. Holan, aurrezkoa epe laburrerako da eta biziaren aurkako kostua handiegia.



OCDE, Eurostat eta OMEak homologatutako erispideak darabilzan Osasuneko Kontu-sistemaren arabera, Espainiako osasun-sistemaren guztizko gastuaren %70 inguru gastu publikoari dagokio eta %30a gastu pribatuari; azken honek urtero murrizten ditu aldeak, batez be hainbat zerbitzu pribatizatzeke dagoan interes politikoak gora egiten diharduelako.

2020rako, koronabirusaren aurretik, Espainiak, bere BPGaren %5,9a zuzenduta eukan aurrekontuan osasun-gastu publikorako. Portzentaje hori, %6,77koa izan zan 2009an eta Europan, batez beste, %7,5 zuzentzen da osasun-arloran. Europagaz alderatuz, bada bereizgarritasunik Espainian, izan ere 1.000 biztanle bakoitzeko ospitale-oheen eta profesionalen kopurua BEeko batez bestekoaren azpitik dago nabarmen eta enpleguaren behin-behinekotasuna be altua da. Datu honek herritarren aldeko arreta eskasa islatzen dau eta, horregaz batera, batzuetan laneko baldintzak txarrak izatea eta langileek jasaten daben presinoa handiegia.

Danok gara osasunaren eragile... Argi eta garbi erakutsi dau hau COVID-19aren krisiak. Krisialdi honetan, kalean maskara erotearen benetako helburua besteak zeuregandik babestea da-eta; hartu-emonak mugatzea birusaren hedapen librea saihestea eta, ondorioz, pertsonarik ahulenen kutsatzea ekiditea da-eta; osasun-arloko adituen aholkuak jarraitu eta sintomakaz etxean geratzeak larrialdietarako guneetako kolapsoa saihestea dakar-eta; auzotarren arteko laguntzarako sareek makina bat lagun bakardade eta estutasunetik atara eben-eta. Krisialdi honetan nabarmendu danez, osasun publikoa ez da erakundeei eta aurrekontuei dagokien kontua bakarrik, eta osasun-sistema egokiak ezintestekoa dau gutako bakoitzaren konpromisoa.

Laguntza emotearen helburua ez da biziak salbatzea bakarrik, ezintasuna gitxitu egin behar dau, oinazea arindu, bideak jarri gaixotasunak ahalik eta jasangarriagoak izan daitezcan, erosotasuna emon eta, azken batean, gizarte osasuntsuagoa lortu.

Zer egin daikegu?

Hona hemen, herritar arduratsu izan eta osasunaren alde konprometitzeko hainbat paraposamen:

- Arreta jasotean ezer ez ordaintzeak ez dau esan gura hori doakoa danik... dirutza handia behar da horri eusteko. Ez daiguzan neurri garik eta gehiegikeriaz erabili baliabideak eta ez daiguzan osasun zerbitzuak justifikazino barik bete.
- Era berean, finantzatutako produktu farmazeutikoen metaketa edo erabilera txarra egundoko gastua da eta ez nahitaezkoa. Aztertu daigun botikak zelan darabilguzan eta sobratzen jakuzanak zelan kudeatzen doguzan.
- Osasun arloko langileek erantzukizunez eta profesionaltasunez egiten dabe euren lana, baina askotan egoerak gainezka egiten deutse. Ez daiguzan erruduntzat jo eta ez daigun euren lana gaitzetsi. Bidezkotzat jotzen badogu, laguntza eta estaldura gehiago eskatu daigun goragoko instantzietan.
- Ohitura osasungarriek babestu egiten gaitue bai pertsona lez eta baita gizarte lez be, laguntza jasangarria ahalbideratuz. Geure burua zainduz, osasun publikoa be zaindu egiten dogu.
- Hautemate goiztiarra da bizkor sendatzeko lehenengo urratsa, oinaze handiagoak saihesteko era da eta, jakina, gaixotasunei aurre egiteko modurik eraginkorrena da. Jaramon egin deiegun aholkuei eta adinaren arabera dagokiguzan baheketetan parte hartu daigun.
- Lagun bakoitza eragile eta hezitzaile gara osasunerako; ez daigun alperrik galdu osasun publikoa, egundoko altxor hau, hau danon artean zaintzea ezinbestekoa dala ikusarazteko aukerarik.
- Hainbat plataforma eta ekimen dago osasun publikoaren alde jarduteko; jaso daigun euren eskaeren barri eta lagundu deiegun gure sinadurekin, parte hartu daigun bilkuretan eta babestu daiguzan osasun jasangarriari eustea bermatzea aldarrikatzen daben aukera politikoak (Hemen: <http://www.fadsp.org/> informazio interesgarri gehiago jadetsi daiteke).